

Ertzainen matxinada

Koldo SAGASTI

Ertzainak borrokan omen dau-
de; edo horixe dio, behintzat,
azken asteotan kaleak protes-
tan hartu dituen erkidegoko
poliziaren talde batek. Matxinatuek,
besteak beste, 1.100 euroko soldata
igoera galdegiten dute eta mehatxua
egin dute haien eskaria aintzat hartu
ezean, Frantziako Tourrak euskal lu-
rretan egingo dituen hiru etapetako
antolakuntza boikotatu egingo dutela.
Hainbestetan langileen protestak za-
puztu dituzten funtzionario bertsuak
orain ustezko lan aldarrikapenekin
atera dira kalera, eta modu iskanbila-
tsu samarrean, gainera. Gasteizko Le-
gebiltzarraren aurrean antolatu duten
azkenengo elkarretaratzeetako batean

trenbidea geldiarazi zuten, manifesta-
zioaren ordena bermatu behar zuten
euren lankideek besoak gurutzaturik
begiratzen zieten bitartean. Erraz ima-
jina dezakegu zein ote zen izango uni-
formedun horiexen erreakzioa beste
edozein gremiotako langileek berdin
jokatu izan balute; eta emaitza, segu-
ruenik, odoltsua izango zen.

Herri honetan ondotxo dakigu nola
jokatu duten historian zehar kolore
guztietako indar polizialek bidezko es-
karien aldarrian kalera atera diren lan-
gileekin. Jaio berritan ikasi genuen lan-
gile klasearen antolakuntza eta
borroka zenbaitetan odolez ordaintzen
dela, eta hazi ahala ere gure hezurrek
estatuko agenteen makilakadak proba-

tu dituzte behin baino gehiagotan, eta
ez gutxitan espaloi horretan bertan,
orain behinolako borreroek inpunitate
erakustaldi lotsagarria egiten duten
horrexetan.

Asteon jakin dut Auzitegi Goreneko
epaile batek ebatzi duela ertzain mani-
festariak eskubide osoa dutela garraio
publikoaren ibilbidea mozteko, ha-
markadetan zehar estrata bertsu ho-
rretan milaka protesta herrikoiri bor-
tizki galarazi zaien eskubide berbera.
Zein eskubide klase ote da, beraz, fun-
tzionario armatuei baino onartzen ez
zaiena? Izango da, akaso, eskubidea
baino pribilegioa dela; indarkeriaren
monopolioa izateak ematen dien pri-
bilegioa, alegia. •

Osakidetzaren osasuna

Amagoia
MUJIKA TELLERIA

Osakidetzak osasun makala
dauka. Bistakoa da gure he-
rria gobernatzen dutenen
lehentasunetan ez dagoela
osasun sistema publiko indartsu eta bi-
zi bat izatea. Tokitan geratu da goizean
goiz anbulatoriora deitu eta egunean
bertan medikuarekin hitzordua izatea
gauza normala zen garaia. Itxaron ze-
rrendetan, langileen haserrean eta bu-
rokrazian korapilatuta gaude. Osakide-
tza entzun eta ileak tente jartzen
zaizkigu.
Horregatik balio handiagoa dauka
gozo hartzen gaituen erizainak, urteen
joanean kalean agurtzen gaituen ema-
ginak, gauzak ondo azaltzen dizkigun
harrerako langileak.

Lagun baten aita zendu da. Azken
egunetan, amaiera bazetorrela jakitun,
kapritxo bat zeukan: etxean gordeta
zeukan txakolin botila probatzea. Etxe-
koek ekarri zioten eta erizainei aipatu.
Noski, nola ez zioten ba txakolin trago
bat baimenduko. Erizainek gordetzen
zuten fresko-fresko, egunkari paperean
bilduta, disimulatzeko. Azken egune-
tan egunero hartu zuen txakolin trago
bat. Nolako poza eta patxada ematen
duen norbait nahi duen bezala joateak.
Eta osasun profesionalak gaixoaren eta
famiariaren ondoan hain gozo eta hain
samur egotea apartekoa iruditzen zait.
Luxu bat esan behar nuen, baina ez lu-
ke luxu bat izan beharko, pertsonen
zaintza erdigunean jartzen duen osa-

sun sistema baten zutabe dira puntako
profesionalak.
Eta izan baditugu osasun langile
apartak. Puntako jakintza eta puntako
gizatasuna duten profesionalak. Begie-
tara begiratzen dutenak, eskuak epel-
tzen dituztenak (baten batek honezke-
ro esan du kontrakoak ere badaudela).
Profesional apartak lan baldintza dui-
nak behar ditu, gustura lan egiteko. Az-
kenaldian osasungintzan haserre dau-
den langileen birusa oso zabalduta
dago, alor askotan gainera. Osasuna
gauza serioa da. Inor ez da gustuz joaten
anbulatoriora edo erietxera eta joaten
denean baliabideak eta arreta kalitatez-
koak direla sentitzeak pixka bat senda-
tzen du. •